Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

Hezkuntza- esparrutik Lan-mundura Trantsizio Bekak

Enpresei zuzendutako gida

UPV/EHUko Kanpo Praktiken Zerbitzua

2018/05/17

Enpresa gisa Unibertsitateko sistema eragilean jarduteko beharrezkoa da Web bidez GAURen erregistratzea.

GAURen kudeaketarako Sarbide Zuzena (link)



Enpresa berri gisa erregistratzeko dagokion botoia sakatu eta behean ikusten den pantaila irekiko da. Pantaila horretan IFZ sartuko degu jarraitu ahal izateko.

IFZ horrekin erregistroren bat aurretik eginda badago jadanik GAUReko moduluetan, eskaintzak egin direlako, pantaila bat irekiko da dauden erregistroekin. Bat baino gehiago balego, gure enpresaren sekzio edo sukurtsalari dagokion harremanetarako pertsona eta posta elektronikoa hautatu beharko dira eta erregistro horretan sartu IFZren ondoan dauden geziekin

Aurrez praktiketako eskaintzarik ez bada kudeatu UPV/EHUn, sartu enpresaren datuak eta Gorde.

Datuak osatu eta gorde ondoren edota dagokion erregistroan geziekin sartu ondoren (aurretik bazeudelako), “Campus” zerrendan Gipuzkoa bilatu eta “Ikastegia”n sakatu: 916-Hezkuntza-Esparrutik Lan Mundura Trantsizioa Beken Bulegoa. Sakatu sarbideko laukitxoa ☑ eta sakatu “Sarbidea eskatu” botoia. Azken hau erabilgarria da laukitxoa markatzen denean.

916-Hezkuntza-Esparrutik Lan Mundura Trantsizioa Beken Bulegoak sarbidea baliozkotuko du eta sistemak posta elektroniko bidez mezu bat bidaliko du erabiltzaile eta pasahitzarekin, GAURen sartzeko eta eskaintzak egin ahal izateko, (ikus GAUR-era SARBIDEA-ESKAINTZAREN ERREGISTRATZEA, 4. Or.)

Behin erregistroa eginda jarri harremanetan interesatuak zaudeten ikaslearen ikastegiko praktiketako arduradunarekin posta elektroniko bidez. Mezu horretan azaldu enpresaren Hezkuntza-Esparrutik Lan-Mundura Trantsizioa beketan parte hartzeko asmoa eta hurrengo datuak ere bidali, ikasle bat esleitu ahal diezazueten:

- Eskatutako tituludunaren profila
- Egingo duen lana
- Lanpostuaren kokapena
- Enpresako instruktorearen datuak, izen-abizenak, NAN zenbakia eta jaiotze data.
- Ordutegiak

GAUR-erako SARBIDEA-ESKAINTZAREN ERREGISTROA

Behin enpresa baliozkotuta dagoenean eta GAURen sartzeko gakoak ditugunean, sisteman sartuko gara **http://gestion.ehu.es/gaur**

Sakatu “Irakasleak, AZP eta beste erabiltzaileak”en

Eta “Unibertsitateko akademi gestio gaurkotua”n

"Enpresa" taldea aukeratu "erabiltzaile ez korporatiboak gaur" destolesgarrian eta erabiltzailea (IFZ) eta pasahitza (enpresaren harremanetarako posta elektronikoan jasotakoak) sartu.

Behin sartuta, Borondatezko Praktiketan sakatu.



Pantaila bat irekiko da non, alde batetik, aukera emango digun lehendik baliozkotutako sarbidea dugun Ikastegiak edota Bulegoak hautatzeko, berdin du ikasturtea irekita edo itxita badago. Eta bestetik "Ikastegia" izeneko eremuan, agertuko zaizkigu Ikastegi edo Bulego guztiak, eta hor eskatu beharko dugu sarbidea "916-Hezkuntza-Esparrutik Lan Mundura Trantsizioa Bulegoa"n.

Balidatzeko zain geratuko da

Behin Bulegoak baliozkotzen duenean destolesgarrian agertuko da hautatzeko zentroen artean “916-Hezkuntza-Esparrutik Lan-Mundura Transitzioa Beketako Bulegoa” izenarekin.

Destolesgarrian hautatutzen dugunean irekitako ikasturteak agertuko zaizkigu.

2018/19 ikasturtean sartu geziekin

Eta eskaintza sartu “Berria” botoia sakatuz.

Garrantzizko datuak praktiketako eskaintza sartzeko orduan:

- Diru kopurua guztizkoa: 1500.-€
- Ordu kopurua gehienez: 360
- Hasiera data: 2018/10/01
- Bukaera data: 2018/12/31



Edozein zalantza izanez gero aplikaziorekin, jarri harremanetan helbide eta telefono hauetan:

borondatezko.praktikak@ehu.eus

praktikak_enpleagarritasuna@ehu.eus

Tfnoak: 34 943 018915 / 34 943 018135